

## 2019-02-19ko bilkura - 3. MUGARRIA - Compromiso 4 Open Eskola / 4. konpromisoa -Open Eskola

**Eguna:** otsailaren 19a, asteartea

**Lekua:** [Ignacio Aldecoa Kultura Etxea](#) Floridako ibilbidea, 9, 01005, Gasteiz, Araba

**Ordua:** 16:30. Aurreikusitako bukaera ordua: 19.30

### Bilkuraren hurrenkera:

1. Egindako lana oinarri, OE ereduari buruzko lehenengo oharrak
2. 3. konpromisoko (laborategia) eta 4. konpromisoko (Open Eskola) talde estrategikoaren bilerari buruzko informazioa
3. OE gidaren eta haren adierazleen lehenengo zirriborroari buruzko lan dinamikoa. Hiru aldagai hauek konbinatzearen inguruan lan egingo dugu:
  - a. Edukia eta euskarria: gaikuntza, indartze soziokomunitarioa, parte hartze plataformak, udalerria/lurraldea ezagutzea, antolamendu egitura, baliabideak.
  - b. Biztanle kopurua. 1.000 biztanle arteko lurraldeak, 1.000 eta 10.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 25.000 eta 50.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 50.000 biztanle baino gehiagoko kuadrillak/eskualdeak.
  - c. OE baterako baldintzak: beharrezkoak/ezinbestekoak direnak OEtzat jotzeko, OE bat hobetzen duten eta/edo hari balio erantsia ematen dioten baldintzak.
4. Irizpide, konpromiso eta premietara hurbiltzea OE pilotu bat egiteko
5. Hurrengo urratsak
6. Bestelakoak

### Bilera honetatik espero diren emaitzak: OE gida baten lehenengo zirriborroa ezartzea hiru alderdi oinarri:

- Gure lurraldean, OE arloan, daukaguna aztertze balio du.
- OE arloan zer daukagun eta zer izan nahi dugun diagnostikatzeko balio du.
- Geure OEa OGP4 OEren arabera “auditatzeko” check-list gisa balio digu

## **OE gidaren eta haren adierazleen lehenengo zirriborroari buruzko bilkura egin baino lehen egin beharrekoa.**

Hiru aldagai hauek konbinatzearen inguruan lan egingo dugu:

- a. Edukia eta euskarria: gaikuntza, indartze soziokomunitarioa, parte hartze plataformak, udalerrria/lurraldea ezagutzea, antolamendu egitura eta baliabideak.
- b. Biztanle kopurua. 1.000 biztanle arteko lurraldeak, 1.000 eta 10.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 25.000 eta 50.000 biztanle bitarteko lurraldeak, 50.000 biztanle baino gehiagoko kuadrillak/eskualdeak.
- c. OE baterako baldintzak: beharrezkoak/ezinbestekoak direnak OEtzat jotzeko, OE bat hobetzen duten eta/edo hari balio erantsia ematen dioten baldintzak.

### **Konpromiso taldeko kideekin egin beharreko aurre lana:**

- Ondoren emango ditugun taula mutuei dagokienez, eta kontuan izanda zeintzuk diren eduki eta euskarrien kategorია bakoitzeko osagaiak eta beren definizioa, lurralde bakoitzarentzat ezinbestekotzat jotzen direnak markatu behar dira (1.000 biztanle artekoak, 10.000 biztanle artekoak, 25.000 biztanle artekoak, 50.000 biztanle artekoak eta 50.000 biztanle baino gehiagoko kuadrillak/eskualdeak)

### **Lan hau egiteko kontuan izan behar dugu zein den 4. konpromisoaren misioa/helburua:**

Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzakultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.

*Oharra: hilaren 19ko bilkuran, eduki eta euskarriko sei fitxak partekatzeko lan egingo dugu.*

*Oharra: konpromiso taldeak emandako 88 inputak, kategoría onetsiak eta Euskadiko errealitateari aplikagarri zaizkion erreferentzia esperientzien mapaketa filtroa oinarri sortu dira taulak.*

### **Open Eskola MISIOA**

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzako kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

### **1. taula.- GAIKUNTZA**

<b>GAIKUNTZA</b>	<b>1.000</b>	<b>1.000 – 10.000</b>	<b>10.000 – 25.000</b>	<b>25.000 – 50.000</b>	<b>50.000 baino gehiag o</b>	<b>Kuadrillak Eskualdeak</b>	<b>Zer da?</b>
Gizarte trebetasunak							Entzuten jakitea, parte hartzea, iritziak ematea eta konbentzitzea, negoziatzea, xedeak ezartzea.
Eztabaidatu eta erabakitzea							Gaitzea eta herritarren eta administrazioaren arteko lotura ezartzea; hau da, enpatia izatea. Azpimarratzea prozesu orientatutik jo behar dela, ekintzara bideratutako parte hartzean eragin behar dela
Herritarren eskubideak eta betebeharrak							Legeak eta hizkuntza teknikoak guri dagokigunera eta gure egunerokoari eragiten dioten gauzetara ekartzea
Porrota kudeatzea							Hobekuntza prozesuak, laborategiko logika oinarri, non errorea eta porrota aurrerapausoaren eta aurrerabidearen zati baitira
Sorkuntza aplikatua							Pentsamendua eta sorkuntza teknikak sustatu eta inplementatzea; baita berrikuntza norberak edo profesionalki aplikatzearen aldeko jarrerak ere.
Parte hartzearen joerak eta egoerak							Arrakasta kasuak eta haien gure errealitatera ekartzeko aukera aztertzea. Arrakasta kasuak haien protagonistek kontatuta.

## Open Eskola MISIOA

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzako kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

### 2. taula.- INDARTZE SOZIOKOMUNITARIOA

Indartze soziokomunitarioa	1.000	1.000 – 10.000	10.000 25.000	25.000 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zer da?
Komunean daukagunak duen balioa garatzea							Giza inguruneak dauzkan balio komunak. Erantzunkidetasuna eragitea eta komunitate kontzientzia sorraraztea (gizarte kohesioa), bizi kalitatearen eta garapen estrategikoaren ardatz gisa. Balio komunak identifikatzea: zein hiritan bizi garen eta amestutako zein hiritan bizi nahi dugun
Dibertsitatea kudeatzea							Dibertsitatea aukera/premia gisa planteatzea. Nola sartu pertsonak bizitza publikoan Pertsonak bizitza publikoan sartzeko oinarri diren hiru ardatzak: aitorpena, justizia eta garapena
Gatazkaren kudeaketa							Ulertzea gatazka berezkoa dela pertsonen arteko harremanetan. Gatazka kudeatzeko teknikak.
Herritarrentzako challenge eta erronka programak							Batzea premia zehatzekiko adimen kolektiboa eta denontzako onurak (ez bakarrik gizarte onurak). Herritarrak elkarri lotzea eta mugiaraztea erronka publikoei irtenbiderik onenak emateko.
Elkarren arteko sorkuntza							Gure hirietan fisikoki eragiten duten proiektuak sortzea. Esku hartzea eta espazioak autokudeatzea
Haurrentzako eta gazteentzako eztabaida guneak							Udal erabakiak hartzeko guneen moduko guneak, arau, eskubide, betebeharrak eta guzti. Erakusgarriak. Laginduak.

### Open Eskola MISIOA

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzako kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

#### **3. taula.- UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA**

<b>UDALERRIA/LURRALDEA EZAGUTZEA</b>	<b>1.000</b>	<b>1.000 – 170.000</b>	<b>10.000 – 25.000</b>	<b>25.000 – 50.000</b>	<b>50.000 baino gehiago</b>	<b>Kuadrillak Eskualdeak</b>	<b>Zer da?</b>
Administrazio publikoek nola funtzionatzen duten azaltzen duten programak/esperientziak							Bisita gidatuak, hitzorduak ...(e)kin; administrazio publikoak ezagutzea ahalbidetzen duen ekintza orok herritarrek hurbiltzen ditu eta parte hartzera motibatzen du.
Norabide anitzak dituztenak							ez da bakarrik herritarrek erakundea ezagutzea, baita erakundeek herritarrek eta herritarren proiektuak “ezagutzea” ere Ez luke ezertarako balioko ezagutzak ematen duen konfiantza, baldin eta ezagutza hori norabide bakarrekoa bada. Herritarren eskolek elkar ezagutzeko eta gizarteko eragile guztiak hurbilarazteko balio behar dute.
Maila anitzak: ondarea, espazio naturalak, historia eta ohiturak, artea...							Lurraldea maila askotan ezagutzen da. Ezagutza horiek modu zabal eta atseginean jasotzea da herritarren parte hartze eskolek proposatu behar duten xedeetako bat.

Lurraldearen ezagutza gaurkotasuneko gaiekin lotzen duten esperientziak							Lurraldea gaurkotasuneko gaien bidez ezagutzea askoz ere atseginagoa da lurraldearekiko interesa pizten laguntzen du.
---	--	--	--	--	--	--	---

### Open Eskola MISIOA

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzak kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

### 4. taula. – PARTE HARTZE PLATAFORMAK

PARTE HARTZE PLATAFORMAK	1.000	1.000 – 170.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zer da?
Gaikuntza eta/edo eztabaida prozesuak sortzea							Adimen kolektiboa aprobetxatu eta aberasten laguntzen dute, herritarren maila guztietan eta sektoreetan parte hartzea ahalbidetuta; baita haien eboluzio garapenean ere
Lurraldean daukaten eragina							Gisa honetako plataformek errazago parte hartzeko aukera ematen dute, parte hartze hori distantzia fisikoek eta astiak mugatzen badute; hortaz, parte hartzea areagotu egiten da.
Interesak taldekatzea							Ongi kudeatuz gero, itxura batean loturarik ez duten taldeek bat egiten dute.
Gaurkotasuneko arloei buruz galderak egiteko aukera eta azkar erantzutea							Aukera ematen dute erantzunak azkar jasotzeko eta parte hartzeko denbora baliaduna ez izateko muga bat.

Ahalduntze orokorra eta inklusioa. Zerbitzu publikoak hobetzea							Herritarrei proposamenak egiteko aukera ematen die. Gainera, balio pertsonala eta kolektiboa sortzeko balio du, eta horrez gain administrazioen eta herritarren arteko konfiantza ahalbidetzen du, aukera ematen duelako plataformen euren eboluzio garapenerako, are herritarrek ere garatzeko ere.
Gune fisikoak eta birtualak konbinatu ahal izatea							Oztopoak kentzen ditu eta inklusioa ahalbidetzen du; gainera, guneak konbinatuz gero, emaitza aberasten da.
Boluntarioaren figurari garrantzia ematea							Boluntarioaren figura bultzatzen da, gehiago daude eta parte hartzean pisu handiagoa dauka.

### Open Eskola MISIOA

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzako kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

#### **5. taula – ANTOLAMENDU EGITURA**

**OEko koordinazio taldea:** talde horrek OEak balidatzen ditu eta lurralde eta udaletan ezartzen eta haien jarraipena egiten laguntzen du. Jardunbide egokiak biltzen ditu beste OE batzuetan aplikatzeko.

Antolamendu egitura	1.000	1.000 – 170.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zer da?
Haurrentzako Agora							Tresna horri esker gazteenek aukera dute parte hartzeko espazio publikoak eraiki, erabili eta kudeatzean, haurren eta nerabeen ikuspuntua oinarri eta haien premien arabera.
Talde eragilea							Herritarren talde bat da udaleko sailen teknikariekkin batera parte hartzen duena OEa gainbegiratu, diseinatu eta ebaluatzean.

Herritarren eta administrazioaren lankidetzari buruzko arautegia							Arautegiak sakon berritzen du hiriaren zaintza eta administrazioa, aurrekaririk ez duen lankidetzaren modu bat sortuz administrazioaren, herritarren eta toki erkidegoko beste artikulazio batzuen artean
Udalaren antolamendu osasuna							Proiektu bat da aurreikusten duena udal antolamenduko kideek nor bera hobetzeko eta hazteko prozesu bat, izango dena herritarrek eta administrazioak elkarri hobeto eragiteko eta herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobeto emateko.

### Open Eskola MISIOA

*Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte hartze eta lankidetzaren kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta.*

#### **6. taula. - BALIABIDEAK**

Baliabideak	1.000	1.000 – 170.000	10.000 – 25.000	25.000 – 50.000	50.000 baino gehiago	Kuadrillak Eskualdeak	Zer da?
Lehiaketa araubidean 2018an emandako dirulaguntzak							Deialdi horrek laguntza eta lankidetzaren tresna bat izan nahi du udal eremuan elkarrekin eta irabazteko xederik gabeko beste erakunde batzuentzat, gizarte ehuna garatu eta toki garapena bultzatzen duten jardunak egitean, herritarren parte hartzearen bidez, gizarte ahaldunduzaren bidez eta erkidegoaren ekintzen bidez.
Open Eskolaren diru aurrekontua							Diru aurrekontua egitea Open Eskolako arlo guztiak garatzeko eta idazkaritza teknikoaren zati bat kudeatzeko.



Udal teknikariak							OEak behar bezala funtzionatu dezan, garrantzitsua da parte hartu dezatela sail desberdinetako teknikariek eta aholkularitza teknikoa izatea parte hartze zerbitzuaren OEren operatiborako.
Herritarrek parte hartzeko zentro fisikoa							Jarduera eta zerbitzu gune bat herritarrentzat, elkarre eta herritarren taldeentzat, udaleko eta beste administrazio batzuetako politikari eta teknikarientzat eta hainbat eremutako arlo soziokomunitarioko profesionalentzat (hezkuntza, kultura, osasuna eta ingurumena).
Idazkaritza teknikoa							Udalekoa bertakoa edo kanpokoa.
Baliabide juridikoak							Erakundeak zerbitzu juridiko bat izan behar du lurralde edo udal bakoitzeko araudia bete dadin.
Komunikazio plana							Kanpoko edo barruko komunikazio plana egitea OEa eta bere jarduerak ezagutzera emateko herritarrei, teknikariei eta ordezkari politikoei.